

leioa

Udal aldizkaria

Martxo 2007
59. Zbk.

www.leioa.net



MENDIBILE
JAUREGIA





Inaugurazioaren programazioa

Hil honen 29an irekiko dira Mendibile Jauregiaren, Leioako hiri bizimodua sendotzeko asmoa daukan topaketa sozial eta kulturalerako gunen berriaren atean.

Inaugurazioaren programazioa publikoen kudeaketari buruzko ekintzak –batik bat gure Erkidegoan– indartzea helburu duten jarduerak batzuek osatzen dute, eta gainera, ekipamenduaren eta Bizkaiko txakolinaren gaien aukerei buruzko programa garatuko da.

Inaugurazioko ekitaldi nagusiak egin eta hurrengo egunean, leioaztar guztiak argi eta soinuz ikuskizunaz gozatu ahal izango dute Mendibile Jauregiaren inguruan 20:00etatik.

Apirilean, Bizkaiko mahastizaintzaren sektore osoarekin ekitaldi soziala egitea aurreikusita dago; halaber, Jatorri-Deituraren profesionalen gogoetako jardunaldiak egingo dira, baita 2006ko uztaren aurkezpena ere.

Bien bitartean, tokiko taldeentzat, eskolaumeentzat, jubilatuentzat eta emakume-taldeentzat ekitaldi batzuk ere aurreikusi dira; proiektua balizko bazkide estrategikoei aurkeztuko zaie; Euskal Herriko ardo gazteen topaketa egingo da, eta ekainean gau tematikoak ere egingo dira.



MENDIBILE JAUREGIA lehengoratzeraoan eta birgaitzerakoan asmoa ez da izan gure arkitektura-ondareko osagairik interesgarrienetako bat lehengoratzea eta birgaitzea bakarrik. Xedea izan da, gune eta leku libre egokirik ez duten San Juan, Iturribide, Ikea Mendia eta Mendibile auzoetako, bereziki horietako, herritarren zerbitzurako irekitzen den herri-eremu berri bat —jauregia kokatuta dagoen parkea— sortzeari eta kualifikatzeari laguntzea. Beste alde batetik, bide berriak ere egin dira, hiri-erdiguneko, batez ere bulebarreko, ibilgailu-trafikoa deskargatzen dutenak, eta aipatu auzoetarako sarbidea ere zuzenagoa izan dadin ahalbidetzen da. Eta, gainera, diseinua Leioan bertako hiri-bizitza sorrarazi eta finkatu nahi duen planteamendu erakargarri batekin egin da. Gure ingurune osoan erreferentziazko leku bat sendotuz. Ekonomi jarduerak sorraraziko dituen eragilea izateko asmoz, euskal lehen sektoreari atxikitako jarduerak ez ezik, baita turismo-egitasmo baterako eta enplegua sortzeko ere. Erakusketak egiteko eta gizarte eta kultur topaketarako lekuak ditu, sormenari irekiak eta guztion aberasgarri izateko.

Orain Mendible Jauregia gozatzea eta zaintzea dagokigu. Guztion artean.

Azkenik, ezinbestekoa da Maite Apeztegia arkitektoari eta bere profesionalen lantaldeari lan bikain horretan, hala proiektuaren idazketan, zelan obratzuzendaritzan, EXISA enpresari ere eskerrak eman nahi dizkiogu, haiek betearazi baitute proiektua, Udalean ditugun langile eta laguntzaile bikain guztiak ahaztu gabe. ■

Jauregiak

Izpta.: Karmelo Sáinz de la Maza Arrola
Leioako Alkatea





Mendibileren Iragana



Mendibile jauregiak hiru mendetik gorako historia du. Xehetasun formal batzuetan oinarrituta, jauregiaren eraikuntza XVII. mendearen azkenetan eraiki zen

MENDIBILE JAUREGIA LEIOAKO ondare historikoa osatzen duten eraikinetako bat da eta inkognitaz betetako historia du. Jatorria ezin da seguru jakin, hainbestearino non, eraiki zen sasoiko datarik ere ez dagoen. Halaber, baserri horren sustatzailea nor izan zen eta bere lehen jabeak nortzuk izan ziren ere ez dakigu.

Eraiki zen datari dagokionez, haren arkitektura-ezaugarriek (oin koadroa, arku karpanel bikoitzeko karrerapea eta leihoburu erregularizatuak) XVII. mendearen azken aldera kokatzen dute eraikuntza, nahiz eta XX. mendean eraikinaren irudia erabat aldatuko zuen birmoldatze garrantzitsua egin zioten.

Mendibilek duen hiru mendeko historia horrek une garrantzitsu bi ezagutu zituen. Horietako lehenengoa bere eraikuntzarena, zein xehetasun formal


batzuenatik XVII. mendearen azken urteetan izan zela esan daitekeen.

Data horretara garamatzate eraikinaren ertz alakatu eta hanpatuek, sasoi hartako beste eraikuntza batzuetan gertatzen den bezala. Berdin gertatzen da arku eskartzanoarekin, dobeladun ateburuen sistemarekin, bizileku-solairuaren aurrealdeko leihoen definizioarekin eta sabaileiho kanporantz irekiekin. Baserri horrek oin ia erabat karratua du, eta lau isurkiko teilatu irregularra, zeinen ezaugarriarik nabarmenena baita fatxada nagusiaren aldetik "mirubuztana" lez egiten duela.

Eraikin hau eregi zenean luxuzko baserri familibikoa egin zen; horrek ekarri dio jendeak "Jauregia" deitzea. Mendibileren bitxikerietako bat da, beraren kategoriako etxe batean etxebizitza bi egotea, ezen bikoiztasun hori, alokatzeko ziren baserrietan bakarrik gertatzen zen, eta hortaz, bada, ez ziren izaten horren handinahiak. Horrek iradokitzen digu etxea familibikoa izatea, beharbada, leinu beraren adar bi bizitzeko asmoz egina izan zitekeela, edo, baita ere, jabeak eraikuntzaren erdi batean bizi zirela eta horrexegatik emango ziotela duintasun berezia, alokatzeko eduki arren beste erdia.

Lehenengo eraikitze-sasoi horretakoak dira, lehen aipatutako xehetasunekin batera, perimetro-paretak, karga-hormak, bao batzuk eta horietako beste batzuen hondakinak, baita estalkiaren egitura ere, baina ez berori estaltzen duten piezak.

XX. mendearen erdialdera arte badirudi Mendibileri ez ziotela aldaketa handirik egin. Orduantxe berriro zen barrua, ia dena esan daiteke, jatorrizko etxebizitza biak sei bilakarazteko. Erreformak ez zuen ia batere kontuan izan etxearen jatorrizko banaketa, ezen edonon zehar trenkadak eraiki ez ezik, leiho berriak ireki zituzten ere, batzuetan lehendik zeudenak hondatuz, eta eremuaren antzinako banaketaren zantzu oro ezabatu zen. Gainera, etxebizitza berrietako batean, zuzeneko sarbide bat ireki behar izan zen kanpotik bizileku-solairura.■





Mendibile Jauregia,

tradizioa eta berrikuntza

MENDIBILE JAUREGIA INTERES HANDIKO ERAIKINA da, ezbairik gabe, hala bere tipologiagatik nola kalitateagatik. Bizkaiko lehenengoetariko baserria da arku bikoizdunen artean. Arkuak ondo tailatuta daude, erreperitorio manieristatik ateratako arkuak dira; eusten dien zutabeak —ohikoa zena lehenengo barroko galerietan— eta jandako ertzek erakusten digute eraikuntzan hargin espezializatuek parte hartu zutela.

Baserriaren birgaitzeak udalerraren iragan historiakoaren zati garrantzitsu bat oneratzea ekarri du; izan ere, horrexegatik gorde dira eraikina definitzen dituzten eraikuntza, arte nahiz tipologi alderdiak eta elementuak.

Horregatik guztiagatik, birgaitzeko lanak egiterakoan, kontuan eduki dira eraikinaren jatorrizko egitura eta estetika lehengoratzeari ahalbidetzen duten alderdi guztiak, eta, aldi berean, beraren berezitasunarekiko begirune guztiarekin, modernotasun-elementu batzuk ere sartu dira, eraikina sinbiosi beteginean

tradizioa eta gaur-gaurko arkitektura-arauak bateratzen dituen eraikuntza bilakaraziz.

Mendibile Jauregiak lau solairu dauzka: sotoa, behea, lehenengoa, eta bigarren-teilatupea, guztira 1.471 metro karratu eskainiz. Azalera horretan zenbait erabilera ezarriko dira. Bateko, baserrian Bizkaiko Txakolin Etxea egongo da, Bizkaiko txakolinaren gaia, haren ekoizpena, gertakuntza, etab, erakutsiko ditu eta bertan kokatuko da, halaber, Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzailea egoitza. Besteko, eta horren guztiaren osagarritzat, bar-kafetegia eta jaietxea ere kokatuko dira. Azkenik, eraikinean ere egongo dira

Eraikinaren zaharberrikuntzak modernotasun-elementu batzuk erantsi ditu, **tradizioa eta arkitekturarik modernoena elkartzen dituen sinbiosi perfektua lortuz**

Mendibile Jauregiaren birgaitzeak baserria **definitzen duten elementuak gorde ditu**

erabilera anitzeko zenbait areto, zeintzuek leioaren eskaintza sozio-kulturalaren zerbitzurako azpiegitura hobetzea ahalbidetuko baitute. Birgaitzerakoan, beraz, eraikinaren erabilera publikoa eta Kontseilu Arauemailearen bulegoek eskatzen duten pribatutasuna bateratzea bilatu da.

Birgaitze-proiektuak oso espazio-eskema argia zuen: perimetro-eraztun bat nagusi lehenengo solairuan, beheko solairurantz irekitako Erdiko hutsarte bat utziz, goitik beherako komunikazio-elementuak hartzen zuen karga-horma garrantzitsuen ondoan. Gainera, eraikina desgorpuztu egin da garaiera irabazi ahala, halako eraz ezen, beheko solairuko jarduketa bolumetrikotzat jo daitekeelarik, lehenengokoa planimetrikotzat eta estalkiko solairukoa airezkoztat jo baitaitezke.

Behealdean eraikina Erdiko horma batekin banantzen dituen konpartimendu bitan dago banatuta. Horietako batean Txakolinaren Kontseilu Arauemailearen bulegoak eta opari-dendaren lekua daude. Sartzeko bidearen alboan daude, espero den bisitari-emariarentzat kanpotik sartzea errazteko.

Behealdearen beste Erdian, Parkearen ondoan, bar-kafetegia eta jantokia daude. Behealdeak sukaldea eta jantokia ipintzeko lain lekurik ez zuenez, beste horma-arte bi eraiki behar izan ziren Mendibileko parkeranzko eraikin-paretari itsatsita.

Lehenengo solairuari dagokionez, zatirik handiena erabilera publikorako da. Beste zati batean Kontseilu Arauemailearen bulegoak, laborategia eta dastatze-aretoa daude. Solairu horretan ekitaldi-areto edo



erabilera anitzeko areto bat ere badago, konpartimentutan itxi ahal dena panel mugikorren bitartez, eta beste erakusketa-areto batekin lotuta dago. Azkenik, bigarren solairuan, jada, liburutegi bat eta mintegietarako eta bileratarako beste gela bat dago.

Baserriaren itxura tradizionalarekin kontrastatzen duten beste elementu bi daude; fatxadari atxikitzen zaizkion eskailerak, erabilera errazteko eta, batez ere, suteen prebentziorako arauaren ebakuazio-baldintzak betetzeko. Eskailerak txapazkoak dira, arintasun-irudia ematen dute eta beirazko eta zulatutako txapa metalikoak kaxa banatan bilduta daude, harlangaitzaren arruntasunaren aldean nabarmentzen delarik. ■

“Bizkaiko Txakolina- Txakoli de Bizkaia”

Jatorri izena



Analisien eta dastatzen bitartez Kontseiluko teknikariek txakolin-marka bakoitza gainbegiratzen dute eta eskakizun guztiak betetzen dituztenek bakarrik lortzen dute Jatorri Izena



“BIZKAIKO TXAKOLINA - TXAKOLI DE BIZKAIA” Jatorri Izena Bizkaian ekoizten diren kalitateko ardoak izendatzeko aipamena da.

Izen horrek 1994an lortu zuen onarpen ofiziala eta harrezkero, Bizkaiko Txakolina ardo zarpail, heldugabe eta garratzxoaren irudiarekin lotzen den iragana atzean uztea lortzeko arauak ezartzen ari da, hura ardo modernoa, ezbairik gabeko nortasuneko, fruta-gustukoa eta azidotasan atsegineko bihurtzen joateko.

Jatorri Izenak bere Arautegian ditu jasota ekoizpen, funtzionamendu, eta tipikotasun arauak, eta beste batzuk ere bai. Kontuan izanda herritar guztiarentzako ondasun erkidea dela, Arautegia Aldizkari Ofizialean argitaratzen da. Lehenengo-lehenengo Euskal Herrikoan eta, gero, Estaturkoan.

Kontseilu Arautzailea

Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileak kontrolatzen du. Haren arautegiak baimena duten mahats-aldaerak, eskualdearen mugak eta ekoizpen-teknikak kontrolatzen ditu, kalitatea eta nortasun propioa bermatzeko. Txakolin-marka bakoitza gainbegiratzea xede, Kontseilu Arautzaileko teknikariek analisiak eta dastatzeak egiten dituzte, eta eskakizunak betetzen dituztenek bakarrik jadetiko dute Jatorri Izenaren sailkapena. Kontrol zorrotz horren adierazpidea kontraetiketa da, Kontseilu Arautzaileak berak zenbakitu eta kontrolatzen duena, eta, hain zuzen ere, horrexek ahalbidetzen du Bizkaiko Txakolinaren benetakotasuna eta kalitatea ziurtatzea. Bizkaiko Txakolina Jatorri Izenpean biltzen dira ekoizleak, zeintzuek, kontratuketarekin eta ikurrarekin identifikaturik, txakolinaren benetakotasuna eta kalitatea bermatzen baitituzte.

Jatorrizko Deitura eta Kontseilu Arautzailearen historia laburki

Lehen adierazi den lez, Jatorrizko Deiturak eta bere Kontseilu Arautzaileak 1994an ekin zioten euren ibilaldiari. Garai haietan Bizkaiko Txakolina artean ia guztiz ezezaguna zen eta lizenaren menpeko sektore txakolingilea oso urria zen.

Horrenbestez, adibidez 1994an Jatorri lizenak 28 upategi bakarrik zituen izena emanda, eta haien artean lizenak babestutako 140.000 litro txakolineko zituzten. Eta mahastien azalera ez zen 60 hektareara heltzen.

Kontseiluak Lorra Soz. Koop.n, Bizkaiko Kudeaketa Tekniko eta Ekonomikorako zentroaren bulegoetan, zuen egoitza, eta han lan teknikoak eta administraziokoak egin ahal izateko bulego batzuk ziren azpiegitura guztia.

Hortaz, bada, hasieran Kontseilu Arautzailearen jarduerak ere gutxi izaten ziren, nahiz eta lehenengo urte haietan hasiak ziren gaur egunera arte ekarri



Dastatze-aretoa

gaituzten funtzionamendurako irizpideak ezartzen.

Oinarrizko printzipio haien artean gehien nabarmentzen direnak, kontsumitzaileari bai jatorria, bai kalitatea bermatzen dizkion produktu bat eskaintzeko asmoa aipatzen dutenak dira.

Horrenbestez, gure garai hauetan txakolin-bolumena 950.000 litro inguruan dago eta ditugun hazteko ikusmugak 3 edo 4 urte barru 1.500.000 litrorara iristera eroan gaitzakete.

Mendibile Jauregia Egitasmoa

Beraz, Kontseilu Arautzaileak beste erronka batzuei ere egin behar die aurre, bere eginkizunak modu eraginkorragoan garatu ahal izateko eta, batez ere, gero eta handiagoa den jatorrizko deituradun ekoizpenari ekarpen gehiago egiteko.

Gogoeta horren ondorioz, Mendibile Jauregia Egitasmoan sartzeko aukera sortu zen, horretara helburu bi lortzen zirela:

- Kontseiluak bere lokalak edukitzea egoitza kokatzeko, berari agindutako eginkizunak garatu ahal izateko ekipamenduarekin batera, gainera. (Dastatze-aretoa, Bileratako gelak).
- Dazkan bitartekoak kontuan hartuta, zalantza barik Bizkaiko Txakolina bultzatzeko eta sustatzeko eragile garrantzitsua izango den egitasmo batean parte hartzea eta berorren buru izatea. (Erakusketa, Dastatze-aretoa, Hitzaldi gela).

Mendibilek ustez eman ditzakeen emaitzak lortzeko, Kontseilu Arautzailea buru-belarri engaiatuko da egitasmoan, gizartea Bizkaiko Txakolina hedatzeko jarduera ugari garatuz eta sustatuz, hala gure gastronomiako elementu berezko gisa, nola geure kulturaren osagai gisa. ■



Mendibile Jauregia Elkartea

Mendibile Jauregia egitasmoa izen bereko elkarteak kudeatuko du, honako hauek osatzen dutela: bazkide sortzaileak diren Leioako Udala eta Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzailea eta, halaber, Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak.



Instituzio publiko horiexek batu dituzte ahaleginak birgaitze-obrei eta jarduerak egin ahal izateko beharrezko tresneria eta ekipamendua ezartzeari ekiteko. Eta bere gain hartzen dute, ipinitako helburuak betetzea xede, jarduera haien garapena orientatu eta babesteko zeregina.

Guztion ahaleginarekin eta elkarlanarekin Mendibile Jauregia izeneko egitasmoak bere gain hartzen ditu bai Bizkaiko Txakolinaren Museoaren kudeaketa, bai hango instalazio guztiena, elkartzeko eta gogoetarako, komunikaziorako eta kanporantz proiektatzeko lekua eskaintzeko

euskal nekazaritza eta abeltzaintza sektoreari, produktu funtsean tradizional eta kalitate handikoekin bere burua ezagutarazten joateko erronkan. Orobat, beharrezko ataria izango da, despentsa eta upategi onenak ezagutu eta dastatu guran dagoen euskal merkaturia bezalako merkatu zorrotz batean sartzeko asmoa duen produktu ororentzat. Eta, hobe ez, gure lurrairen eta itsasoaren produkturik onenekin egindako sukaldaritza aparta eskaintzeko jantoki eroso gozatzeko, aldi berean munduko bazter guztietako menderik mendeko tradizioz sakon eta begirunetsuaren duin diren ahogozoak eta usainak ere aurkituko direla.

Mendibile Jauregiak Bussines Center bihurtzeko asmoa ere badu, bere bileretarako edo gertakarietarako esparru paregabea eta behar bezalako zerbitzuak dituen bilatzen duen enpresa edo instituzio ororentzat, baita bigarren edo hirugarren sektorekoentzat ere.

Eta, azkenik, Mendibile Jauregia herritarren elkargunetzat, gogoetarako eta gizarte-elkarrizketarako eta kultur sorkuntzarako esparrutzat ere irekitzen da. ■



txakolinaren museoa



Gai bakar baten gaineko museoaren egitasmoa planteamendu oso baten barruan aurkezten da. Bertan lekua egin nahi zaie historiari eta ondareari, hezkuntzari eta dibulgazioari, txakolina-gastronomia binomioari, produktuen sustapenari, kulturari, paisaiari eta naturari.

"Bizkaiko Txakolin Etxea" egitasmoan aurreikusitako esparruen artean nabarmentasun berezia du Txakolinaren Museoarentzakook. Esparru horretan mahastizaintzaren eta Bizkaiko txakolinaren gertakuntzaren gaikako edukiak aztertuko dira, Txorierrri haranari atxikita bereziki, baita bertan egongo dira erakusgai berreskuratutako material historikoa eta ondarea ere. Gainera, kontuan edukiko dira txakolinaren eta gastronomiaren inguruko gaiak.

Edukiak planteamendu didaktiko bati jarraiki garatuko dira eta prozesu osoa ulertzeko kontzeptuak hartuko ditu, hots: mahatsondoak landatzetik eta, besteak beste, gertakuntzan eta gastronomian barrena, txakolina edateko unera arte. Atal eta fase horiek guztiak erakusteko, denetariko elementuak baliatuko dira: informazio-panelak, txakolina egiteko erabilitako gauzen eta tresnen erakusketa, dokumentazioa eta argazkiak eta euren didaktika eta museo balioagatik interesgarriak diren bildumen erakusketa.

TXAKOLINAREN MUSEOA

Asteartetik igandera: 11:00 - 14:00 hr
17:00 - 20:00 hr

GIDARIDUN BISITAK aurretiaz hitzordua eskatuta,
94 607 6067

- **ASTEARTETIK OSTIRALERA**, euskaraz 12:00etatik 18:00etara eta gaztelaniaz 13:00etatik 19:00etara
- **LARUNBATETAN**, euskaraz 12:00etatik 18:00etara, eta gaztelaniaz 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara
- **IGANDEETAN**, euskaraz 12:00etan eta gaztelaniaz 13:00etan

Bestalde, Bizkaiko Txakolina Jatorri Izenaren Kontseilu Arautzaileari dagokion gunean, zer den eta beraren eginkizunak zeintzuk diren azalduko dira, mahatsaren kalitatea eta ardoen sailkapena kontrolatzeko prozesua erakutsiko da, baita txakolinaren sustapena eta merkaturatzea ere. Horretarako, enoteka edo dastatze eta kontsumo gela bat egongo da eta, bertan ordezkaturata, Jatorri Izenari atxikitako upategia guztiak.

Solairu horretan bertan Dastatze Batzordearen gela bat eta txakolinaren zentzumenez- ezaugarriak: kolorea, usaina, ahogozoa, etab. zeintzuk diren eta, irizpide arduratsuz egin nahi bada, nola gorde eta kontsumitu behar den azalitzeko leku bat. ■





José Miguel Gallastegi sukaldaria Mendibile **Jatetxean**



Jatetxearen irudia oso teknologikoa da bere egiturazko soluzioengatik, **altzairu herdoilezinezko profalez baliatzen baitira haren sostengu-oinarrietarako**, hala hormigoizko lauzan bermatzen denean, nola airean dabilenean

MENDIBILE JAUREGIA INAUGURATZEKO ekitaldiarekin batera, Mendibile Jatetxeak ere bere ateak irekiko ditu martxoaren 29an. Jose Migel Gallastegi Zabala sukaldaria 15 urteko emakida lortu ondoren dator kokapen berri honetara. Gallastegik Basauriko Politena jatetxea, jatetxe klasikoetakoa, jakien kalitateagatik nabarmentzen dena, artezten du 1979tik. Horrek ospe handia lortzeko balio izan dio sukaldariari. Txikitatik

datorkio gastronomiarekiko zaletasuna, nola ez, sukaldari-familia batekoa izanda, eta 16 urte besterik ez zituela hasi zen ostalaritzako gremioan beharrean

Mendibile baserria ikusi zuenean, Gallastegik ez zuen zalantzarik izan lanbide-erronka berri horri ekiteko: "Txundituta geratu nintzen ikusi nuenean zein gustu onez zegoen zaharberrituta, klasikoa eta modernoa hain egokiro bateratuta, eta liluragarri egin zitzaidan bere argitasunagatik eta zabaltasunagatik.

Guggenheim Museoarekin edo Euskalduna Jauregiarekin gertatzen den bezala, ostalaritza-zerbitzua baitute, Mendibile jatetxea osagarri ezin hobe izango da Txakolinaren Museoarentzat. Gallastegik txakolinarekiko "grina handia" du eta hau produktu kutuna izango dela adierazi du.

Jantokiak 75 bazkaltiar hartzeko edukiera du; baina Museoaren ordutegiari atxikita, 250eraino ere handitu daiteke ospakizunetan. Jantokian ezteiak, jaunartzeak, enpresa-bilerak, produktu-aurkezpenak etab egin ahalko dira eta enkargu-zerbitzua ere egongo da. Orobat, asmoa da, terraza bat irekitzea eguneroko menuak eskaintzeko. ■



Mendibil PARKEA

URTEBETE PASATXO IGARO DA Mendibile parkea ireki zenetik. Inguru hori urbanizatzeke lanak egiten urte batzuk igarota, dagoeneko hor ditugu hiri-parke horren hogeita hamar mila metro karratuak, denok gozatu ahal izateko.

Parkearen azalera osoan atsedeen-lekuak eta haurrentzako jolasguneak daude, 40tik gora espezie-multzo desberdinetako zuhaitzak aurkituko ditugu, behar bezala identifikaturik bakoitza bere euskarazko zein gaztelaniazko izenekin eta izen zientifikorekin, guztira 270 zuhaitz baino gehiago. Zuhaitzez gain, parkeak milako

erditik gora zuhaixka-landare ere edukiko ditu.

Egunokaz mahats-barietate desberdinetako 35 mahatsondo landatzen ari dira Mendibile Jauregira sartzeko bidearen maldan. Landatutako mahatsondoak bertoko lau barietate dira: txakolinetarakoak hiru, *ondarrabi zuri*, *ondarrabi zuri zerratia* eta *mune mahatsa* izenekoak, eta beste bat, ardotarakoa, *ondarrabi beltza*. Mahatsondoak olibondoan, artean eta hariitzen artean landatuko dira behin banan. ■

Eskerrik Asko

Beren-beregi eskertu nahi dugu, egitasmoa behar bezala amaitzeko, erakunde pribatu batzuek egindako ekarpen ordainezina. Horrenbestez, Bilbao Bizkaia Kutxak 150.000 euroko diru-laguntza eman zuen museo-hornikuntza finantzatzeko, eta, aldi berean, EROSKI beste 30.000 euroko ekarpen bat egin zuen fondo galdura, egitasmoaren helburuetarako. Ezinbestekoa da, bada, haiei guztiei eskerrak ematea euren konpromisoagatik eta laguntzagatik.

bbk

EROSKI
Koop.E.-S. Coop.

Etorkizunerako irekita dago, logikoa den lez, egitasmoaren helburuei atxikiko zaizkien Bazkide Laguntzaileak eta Babesleak edukitzeko aukera; gero horiek, ordainean, baldintza bereziak izango litzukete instalazioak erabiltzerakoan eta jardueretan.

